

C hepatitisaren transmisioa

C hepatitisaren birusa zenbateraino transmititzen da umearengana amaren haurdunaldian? B hepatitisaren edo HIESaren transmisioa bezain ongi ez dago ikertua C hepatitisaren transmisioa. Dena den, Japonian egindako ikerketa batzuei esker lehen emaitza fidagarriak lortu dira. Transmisio-arriskua batezbeste % 6koa da, baina amaren birus-tasa altua denean arriskua % 50erainokoa izan daiteke.

Musikarien garuna

Musikarien garuna eta musikari ez direnena ez dira berdinak. Entzumenean zerikusia duen plano tenporala ezke-

Musikarien garuna eta musikari ez direnena ez dira berdinak.



rreko hemisferioan eskuinekoan baino garatuagoa dute. Bestetik, bi hemisferioen arteko komunikazioa segurtzen duen gorputz kailukara, musikariek % 10 edo 15 garatuagoa dute. Azken ezaugarri honi esker, bi hemisferioen arteko komunikazioa hobetuta instrumentujoleek psikomotritzitate aldetik koordinazio hobea izango dute.

Ikerleek diotenez, ezaugarri hauek genetikarekin zerikusi handirik ez dute. Musikarien prestakuntza-saioekin bai ordea, eta musika ikasten zazpi urte bete baino lehen hasitakoek ezaugarri hauek markatuagoak dituztela diote gainera.

Errealitate birtuala fobien kontra

Kalifornian akrofobia edo altitudearekiko beldurra duten pazienteekin terapia berria probatu

dute. Paisaje birtualean kokatzen dira eta 50 minutuan amildegri baten ertzean ibili behar dute. Gero pasabide estu batetik igaro behar dute eta azkenean zubi batean zehar ibili ere bai. Lortutako emaitzak oso onak izan dira. Izan ere, etxe batean (benetako etxe batean oraingoan) hamabostgarren pisoraino beirazko igogailu gorden batean iristea hamazazpi bolondresetik hamaseik lortu baitute.

Arnasagatik detektatutako bakterioak

Orain arte medikuek *Helicobacter* edo ultzeraren bakterioa detektatzeko bide bakarra zuten: endoskopiaren bidez urdaileko mukosatik lagin bat hartzea. Orain ordea, limoi-gustuko likido bat irentsi eta orduerdia barru tutu bati putz egitea aski da. Likidoarekin batera pazienteak zenbait miligramo urea edaten du eta hor karbono 13aren proportzioa egoki aldatu zaio *Helicobacter* bakterioa harrapatzearen. Bakterio honek urea asko kontsumitzen du, eta entzima espezifiko bati esker gas karboniko bihurtzen du. Horregatik, bakteriorik (edo ultzerarik) ez badago, karbono 13az

aberastutako gas karbonikorik ez da egongo pazientearen arnasean, eta alderantziz. Sistema honen kostua endoskopiarena baino hiru aldiz merkeagoa da. Gasaren analisia masa isotopiko-prozedura espektroskopikoz egiten da.

Kokaina eta garuna

Kokainak garunean kalte iraunkorrak sortzen dituela adierazi berri dute. Saiakuntza batzuetan frogatu denez, funtsez-

Funtsezko neurotransmisore den dopaminaren garraiatzaileen % 38 hartzaile gutxiago topatu dira kokainomanoen kortex prefrontalean.



ko neurotransmisore den dopaminaren garraiatzaileen % 38 hartzaile gutxiago topatu dira kokainomanoen kortex prefrontalean.

